

In vitro haragia, laster platerean

Sei hilabete igarotzerako, lehen *in vitro* saltxitxa egitea lortuko dute. Arlo horretan aitzindari den Maastricht Unibertsitateko fisiologo batek, Mark Postek, egin du aurreikuspen hori, Gothenburgen egin berri duten biltzar batean. Biltzarrean, *in vitro* haragia sortzeko azken lanak azaldu zituzten nazioarteko ikertzaileek, eta, haietako batzuek Postek esandakoa eszeptizismoz hartu bazuten ere, iragarpenak oihartzun handi samarra izan du komunikabideetan.

Mark Postek azaldu duenez, 2,5 zentimetro luze eta 0,7 zabal diren muskulu-zerrendak lortu dituzte, zerrien zelula amak hazita zaldi-fetuaren sueroarekin. Horretarako, lehenik, zelula amak hartzen dituzte zerrien muskuluetatik; eta, gero, laborategian hazten dituzte, hiru dimentsioko euskarri batean. Euskarria polimero biodegradagarri bat da, eta edozein itxura har dezake. Zelulak bi puntutara eutsita ezartzen dituzte, tentsioan haz daitezten, eta hazteko behar dituzten mantenguai guztiak ematen dizkiete.

Gainera, zelulei estimulu elektrikoak ere ematen dizkietela esan du Postek; hartara, uzkurto egiten dira, eta tentsioan egote hutsarekin baino proteina gehiago sortzen dute. Dena dela, haien helburua ez da muskulu

bat sortzea, odol-hodi eta guzti, baizik eta muskulu-ehuna, saltxitxak edo hanburgesak egiteko, adibidez.

Nolanahi ere, arazoak ere badituztela aitortu du ikertzaileak. Horietako bat da zerri-muskuluko zelula amek *in vitro* hazteko gaitasun mugatua dutela: 20-30 aldiz ugaldutako ondoren, ahalmen hori galtzen dute. Horrenbestez, zerrien muskuluetatik zelula ama berriak erazterea behartuta daude. Horrez gain, metodoaren eraginkortasuna asko hobetu behar dute, ohiko haragia ekoiztea baino askoz garestiagoa baita *in vitro* sortzea.

Maastricht Unibertsitateko ikertzaileen esanean, *in vitro* haragiak bi abantaila nagusi ditu haragi arruntarekin alderatuta: batetik, ez dela abererik hil behar —*pain-free meat* ere deitzen diote, hau da, oinazetik gabeko haragia—, eta, bestetik, ohiko haztegiak baino energia gutxiago kontsumitzen duela eta hondakin gutxiago sortzen dituela.


Luze joko du merkaturatzerako, besteak beste, osasunerako segurua dela frogatu beharko dutelako; baina, iristen bada, azken hitza kontsumitzaileek dute. Eta dagoeneko azaldu dira frankstein-haragiaren aurkako iritziak. ●



Ikertzaileen helburua ez da muskulu bat sortzea, muskulu-ehuna sortzea baizik, hanburgesak egiteko, adibidez. ARG.: ARTXIBOKOA.

Immunologia-sistemarentzat ikusezin izateko mekanismoa argitu dute

Mikroorganismo batzuk ikusezinak dira immunologia-sistemarentzat. Orain, mikroorganismoek ahalmen hori nola lortzen duten jakin dute Washingtongo Unibertsitateko ikertzaile batzuek.



Odoleko zelulen argazki bat. Globulu gorrien artean, T zelulak daude. ARG.: NCI.

Gakoa T zelulen trebakuntzan dago. T zelulak immunologia-sistemaren zelula espezializatuak dira, eta timoan trebatzen dira, nolabait esateko. Alegia, han ikasten dute antigenoak bereizten.

Alabaina, orain ikertzaileek frogatu dute T zelulek kolonean ere jasotzen dutela trebakuntza. Hala, ikusi dute koloneko T zelulen errezeptoreak bestelakoak direla, timoan heldutako T zelulekin alderatuta. Horrez gain, frogatu dute hesteetako bakterioen eraginez direla desberdinak, eta horri esker direla bakterio horiek ikusezinak T zelulentzat.

Ikerketa saguekin egin badute ere, ikertzaileek uste dute pertsonetan ere antzeko zerbait gertatzen dela. Are gehiago, haien iritiz, ikerketa baliagarria izan daiteke kolitis ultzerosoaren eta Crohnen gaixotasunaren jatorria ulertzeko.

Nature aldizkarian eman dute ikerketaren berri. Dena dela, ikertzen jarraituko dutela adierazi dute ikertzaileek, susmoa baitute badagoela mekanismoren bat, bi bakterio-motak bereizteko, kaltegarriak eta ez-kaltegarriak. Mekanismo hori aurkitzea da, beraz, ikertzaileen helburu nagusietako bat. ●